



Agiri-mota / Tipo de documento: **Propuesta de resolución**
Data / Fecha: 04/02/2025
Nori zuzendua / Dirigido a: BNetako Mahaiari / La Mesa de las JJGG de Gipuzkoa
Aurkezlea / Proponente: Mikel Lezama Zubeldia
Batzarkide taldea / Grupo Juntero: Grupo Juntero Popular / Batzarkide Talde Popularra
12-C-34-956. 2367

IZENBURUA / TÍTULO

Ebazpen-proposamena, Ordizia eta Zaldibia lotuko dituen bide berdea gauzatzeko.

OSOKO BILKURAN BIDERATZEKO ARRAZOIA / JUSTIFICACIÓN PARA TRATAMIENTO EN PLENO

Aztertu beharreko gaia oso garrantzitsua denez, eta Batzar Nagusien Araudiko 151. artikulua eta hurrengo araberan, beharrezkotzat jotzen dugu osoko bilkuran hartzea erabaki bat, batzarkide guztiak bertan direla.

ZIOA eta/edo AURREKARIAK / MOTIVACIÓN y/o ANTECEDENTES

2010eko irailean, orduko garapen jasangarriko diputatu Carlos Ormazabalek, Ordiziako alkatearekin batera, Gipuzkoako Foru Aldundiak Ordizian egindako bidegorria inauguratu zuen. Inauguratu zuten zatia bizikleta eta oinezkoentzako bidearen lehenengo zatia zen, eta foru-diputatuak iragarri zuenez etorkizunean Ordizia eta Zaldibia lotuko zituzten.

2009an, Gipuzkoako Foru Aldundiak bidegorriaren lehen zatiko obrak esleitu zituen, "Ordizia-Zaldibia" bizikleta eta oinezkoentzako bidea (lehen fasea). Ekimen horrek bi zubi jartzea aurreikusten zuen (bat Oria ibaiaren gainean eta beste bat "La Montañita" rekiko paraleloan). Kilometro bat baino gehixeago zen luze, Fray Andresen estatuaren parean hasi eta Aramako bidegurutzearen parera arte, Txindoki Etxealdea inguruko galdaragintzan. Kostua bi milioi euro baino gehixeago zen. Horretarako, aldeko ingurumen-inkaktuaren txostena egin zen 2010eko otsailean.



Ondoren, 2013ko ekaineko Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurralde Plan Sektorialean, zeina aho batez onetsi baitzen ganbera honetan 2013ko ekainaren 10ean, bizikleta-bide hori ere agertu zen, Donostia-Beasain ardatzari dagokion ibilbidearen barruan. Hiru kilometroko trazadura zuen, eta 2021erako bukatuta egongo zela aurreikusten zen.

Ia 15 urte igaro dira, eta Foru Aldundiak bizikleta bide hori amaitu gabe jarraitzen du, goierritarren eskaera handia izan arren.

EBAZPEN-PROPOSAMENA / PROPUESTA DE RESOLUCIÓN

1. Gipuzkoako Batzar Nagusiek Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen diote bete dezala Bizikleta Bideen 2013-2021 Lurralde Plana eta, zehazki, amaitu dezala Ordizia eta Zaldibia arteko bidegorria, oinezkoek eta txirrindulariek erabiltzeko eta gozatzeko bide berde bihurtuz.

Proposatzailearen sinadura / Firma del proponente

Mikel LEZAMA ZUBELDIA

GRUPO JUNTERO POPULAR

BATZARDIDE TALDE POPULARRA

Bozeramailearen oniritzia / Visto bueno portavoz

Mikel LEZAMA ZUBELDIA

GRUPO JUNTERO POPULAR

BATZARKIDE TALDE POPULARRA

